

**ADIK
ZIO
EN
VII. Plana**

Euskadi 2017-2021

**INPAKTU EDO EMAITZA
ADIERAZLEAK
ADIKZIOEN VII. PLANA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

ADIK
ZIO
EN
VII. Plana

Euskadi 2017-2021

INPAKTU EDO EMAITZA
ADIERAZLEAK

ADIKZIOEN VII. PLANA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

VITORIA-GASTEIZ, 2024

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan
aurki daiteke:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia:

1.a, 2024ko abendua

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioa. Osasun Saila

Egileak:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
Osasun Saila

Internet:

www.euskadi.eus/aragitalpenak

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian k, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ

Diseinua eta Maketazioa:

Osasun Publikoaren Eta Adikzioen Zuzendaritza
Osasun Saila

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

**Inpaktu- edo emaitza-
adierazleak
Adikzioen VII. Plana**

Aurkibidea

	Orria
Sarrera	2
Eragin- edo emaitza-adierazleen laburpena	3
1. ARDATZA: Adikzioen prebentzioa eta osasunaren sustapena	3
3. ARDATZA: Laguntza sanitarioa eta soziosanitarioa eta gizarte-inklusioa	14
4. ARDATZA: Ezagutzaren kudeaketa, prestakuntza eta ebaluazioa	16
5. ARDATZA: Lidergoa eta koordinazioa	20

Sarrera

Adikzioei buruzko Euskadiko 2017-2021eko Planak prozesurako adierazleak eta emaitzen edo eraginaren adierazleak ditu berekin. Prozesurako adierazleak planaren lerroak pixkanaka nola ezartzen diren ebaluatzeko dira, eta emaitzen edo eraginaren adierazleak, berriz, planak 2021. urterako lortu nahi dituen helburuak dira.

Urtero argitaratu dira prozesuaren adierazleak jasotzen zituzten txostenak. Adierazle horietan planaren lerroen pixkanakako ezarpena ebaluatu da.

Txosten honek Adikzioei buruzko Euskadiko VII. Planaren eragin- edo emaitza-adierazleak aurkezten ditu, eta helburua, azken batean, planaren helburuak bete diren jakitea da: mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoa ahalik eta gehien murriztea, bai eta jokabide-adikzioak sortzeko arriskua ere, eta, ondorioz, jokabideok pertsonen eta haien familien, komunitatearen eta, oro har, biztanleriaren osasunean dituzten ondorioak.

Hain zuzen ere, iturri hauetatik lortzen da nagusiki adierazle horiei buruzko informazioa: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, Drogak eta Eskola inkesta, Euskal Osasun Inkesta (ESCAV). Hona hemen beste iturri batzuk: Osasun Sailaren beraren eta adikzioen esparruan esku hartzen duten beste agente batzuen datuak (tokiko prebentzio-ekipoak, hirugarren sektorea, Drogen Plan Nazionala, eta abar); adikzioen prebentziorako, kalteen murrizketarako, tratamendurako eta gizarteratzeko urteko laguntzen ebaluazioa; osasun mentaleko zentroyen eta eremu soziosanitarioko zentroyen jarduera; eta ezagutza areagotzeko eta kontsumoen prebentziorako edo murrizketarako ikerketa-ekintzarako azterlanak eta esku-hartzeak.

Txosten honetan, 2017-2023ko aldiko datuak daude; Euskadiko Adikzioen VIII. Plana (2023-2027) argitaratu arteko Adikzioei buruzko VII. Planaren luzapena jaso da bertan.

Eragin-adierazle bakoitzaren identifikazio-zenbakia Adikzioei buruzko Euskadiko VII. Planean (2017-2021) agertzen denarekin bat dator.



https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/44_plandep_xileg/eu_def/adjuntos/VII_plan_adicciones_eu.pdf

Eragin- edo emaitza-adierazleen laburpena


1. ARDATZA. ADIKZIOEN PREBENTZIOA ETA OSASUNAREN SUSTAPENA

Eragin- edo emaitza-adierazleei dagokienez, abiapuntua 2017. urtea da; alegia, adikzioei buruzko aurreko inkestaren urtea. Zenbateraino bete den jakiteko, Adikzioei buruzko Euskadiko 2023ko Inkesta erabili da.

Inkestaren 2017ko lagin-esparrua Euskadiko familia-etxebizitzetan bizi ziren 15-74 urte arteko biztanleek osatzen zuten, eta laginaren tamaina 2.013 pertsonakoa izan zen.

Adikzioei buruzko 2023ko Inkestan lagin-esparrua zabaldu egin zen, Euskadiko familia-etxebizitza okupatuetan bizi ziren 15 urteko eta gehiagoko biztanle guztietara. Areagotze horren bitartez, historikoki radarretik kanpo egon diren adinekoen adikzioen egungo egoera ezagutu nahi zen. 2023an laginaren tamaina 2.500 norbanako titularrekoa izan zen, eta haiek lurralde historikoaren eta adinaren arabera sailkatu ziren.

Azken inkestaren aldaketa garrantzitsuenetako bat galdetegian nazioartean baliozkotutako eskala batzuk sartzea izan da, zenbait substantziarekiko mendekotasun-arriskua neurtzeko. Horri esker, balioa eman zaie lortutako emaitzei, eta haiek konparatzeko aukera dago. Aipatzekoak dira AUDIT eskala (alkoholarekiko mendekotasun-arriskua baloratzeko aukera ematen du), CAST eskala (kalamu-kontsumoaren arriskua neurtzen du eta substantzia horrekiko egon daitezkeen adikzio- eta mendekotasun-kasuak bereizteko aukera ematen du), joko patologikorako DSM-IVren irizpideak, eta CIUS eskala (Compulsive Internet Use Scale, Interneten erabilera problematikoa neurtzekoa).



https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_euskadi_drogas/eu_def/adjuntos/Encuesta-Adicciones-2017-Avance-Resultados_EUSK.pdf

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_euskadi_drogas/eu_def/adjuntos/euskadiko-adikzioen-inkesta-2023.pdf

5. Adierazlea: 15 urtetik 24ra bitarteko gazteek alkohola, kalamua eta tabakoa kontsumitzen hasteko adina (lehenengo aldiz probatzen den adina) atzeratzea, sexuaren arabera banatuta. Abiapuntua (2017).

Kasu guztietan, kontsumoa hasteko adina apur bat igo zen 2023an, eta, beraz, datuak apur bat hobeak dira.

Alkohol-kontsumoa: 15 urtetik 24ra bitarteko gazteen artean, 15 urte da edari alkoholdunen kontsumoan hasteko batez besteko adina.

Edari alkoholdunen kontsumoan hasteko batez besteko adina sexuaren arabera.

	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	15,3	15,3	15,3	15,4	15,4	15,4

Kalamu-kontsumoa: 15 urtetik 24ra bitarteko gazteen artean, 16-17 urte da kalamu-kontsumoan hasteko batez besteko adina.

Kalamu-kontsumoan hasteko batez besteko adina sexuaren arabera.

	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	16,6	16,7	16,5	16,8	16,9	16,8

Tabako-kontsumoa: 15 urtetik 24ra bitarteko gazteen artean, 15-16 urte da tabako-kontsumoan hasteko batez besteko adina.

Tabako-kontsumoan hasteko batez besteko adina sexuaren arabera.

	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	15,4	15,7	15,1	16,0	16,1	16,0

6. Adierazlea: Tabakoaren, alkoholaren, kalamuaren, bestelako droga ilegalen eta psikofarmakoen gaur egungo eta eguneroko kontsumo-tasak murriztea 15 urtetik 24ra bitarteko biztanlerian, sexuaren arabera banatuta. Abiapuntua (2017).

Alkohol-kontsumoa:

Egungo kontsumoa (azken hilabetea) nabarmen murriztu da mutilen artean, baina eguneroko kontsumoa baloratzea oso zaila da, datuak ez baitira egonkorak.

- Egungo kontsumoaren tasa: 2023an, azken 30 egunetan edari alkoholdunak kontsumitu dituzten 15 urtetik 24 urtera bitarteko biztanleriaren ehunekoa ia 5 puntu murriztu da 2017koaren aldean: % 69,6 zen orduan, eta % 64,8 izan da 2023an. Beherakada nabarmena da mutilen artean, baina nesketan apur bat egin du gora.

Edari alkoholdunen kontsumoa azken 30 egunetan, sexuaren arabera.

	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	69,6	64,5	74,8	64,8	65,7	64,0

- Eguneko kontsumoaren tasa: 2023an 1,7 puntu igo da azken hilabeteen alkohola eguneroko kontsumitu duten 15 urtetik 24 urtera bitarteko biztanleriaren ehunekoa. Nolanahi ere, datu hori tentuz aztertu behar da, fenomenoak ohikoa ez denez balitekeelako laginaren tamaina nahikoa ez izatea.

Alkoholaren eguneko kontsumoa, sexuaren arabera (%).

	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	0,7	0,5	1	2,4	2,1	2,8

Kalamu-kontsumoa:

Kalamuaren egungo eta eguneroko kontsumoa murriztu egin da 2023 eta 2017 artean, baina mutilen artean jaitsi delako gertatu da.

- Egungo kontsumoaren tasa: 2017an, azken 30 egunetan kalamu-kontsumoaren maiztasuna, 15 urtetik 24 urtera bitarteko biztanlerian, % 13koa zen. 2023an, ia 4 puntu murriztu zen, eta mutilek neskek baino gehiago kontsumitzen jarraitu zuten. Kalamua inoiz kontsumitu ez duten pertsonen proportzioa apur bat handiagoa zen 2023an.

Kalamu-kontsumoa azken 30 egunetan, 15-24 urte arteko biztanleriaren artean (%).

	Ez du inoiz probatu	Ez du kontsumitu azken 12 hilabeteetan	Hilean 1-3 egunetan	Astean 1-3 egunetan	Astean 4-6 egunetan	7 egun astean
2017	52,7	34	5,9	3,5	0,8	3,1
2023	54,7	35,8	4,4	2,2	1,7	1,1

Egungo kalamu-kontsumoa, sexuaren arabera (%).

	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	13,3	6,9	19,8	9,5	6,5	12,2

- Eguneko kontsumoaren tasa: Alkoholaren kasuan bezala, kalamuaren eguneroko kontsumoa ez da adierazle egonkorra, baina badirudi datuek erakusten dutela % 25 murriztu dela 2017 eta 2023 artean. Beharakada mutilen artean izandako bilakaera onari zor zaio, % 6,4tik % 3,7ra jaitsi baita.

Kalamu-kontsumoa azken 30 egunetan, sexuaren arabera (%).

	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	3,9	1,4	6,4	2,9	2,0	3,7

Oharrak: Azken 30 egunetan astean gutxienez lau eguneko maiztasunarekin kontsumitu izana hartuko da eguneroko kalamu-kontsumo gisa.

Tabako-kontsumoa:

Ikusi da tabakoa eguneroko eta azken hilabeteen kontsumitzen duten nerabeen eta gazteen proportzio orokorrak gora egin duela, nesken portaera aldatzearen ondorioz. Izan ere, mutilen artean ia ez da aldaketarik izan.

Tabako-kontsumoaren adierazleak 15-24 urteko biztanleen artean (%).

	Bizitzan noizbait	Azken 12 hilabeteetan	Azken 30 egunetan	Egunero
2017	25,5	20,1	18,7	14,3
2023	51,9*	31,2	23,7	16,2

*Oharra: 2023an, bizitzan zeharreko kontsumoa honela definitzen da: inoiz zigarroren bati zupada bat edo bi eman izana.

- Eguneko kontsumoaren tasa: 2017an, 15-24 urteko biztanleriaren % 18,7k tabakoa erre zuten azken 30 egunetan, eta, 2023an, proportzioa 5 puntu hazi zen; igoera hori ia osorik nesken artean izandako hazkundearen ondorioa da.

Eguneko tabako-kontsumoa, sexuaren arabera (%).

	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	18,7	17,9	19,5	23,7	27,4	20,3

- Eguneko kontsumoaren tasa: tabakoa egunero kontsumitzen zuten 15-24 urteko nerabeen eta gazteen proportzioa ia % 12 igo zen 2017 eta 2023 artean, eta gorakada, berriz ere, nesken bilakaeraren ondorioz gertatu zen.

Eguneko tabako-kontsumoa, sexuaren arabera (%).

	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	14,3	13,9	14,6	16,2	18,5	14,1

Kalamua ez diren legez kanpoko beste droga batzuen kontsumoa:

Kalamua ez diren legez kanpoko beste droga batzuen kontsumoei buruzko datuak nahiko ezegonkorrak dira, fenomenoaren prebalentziak laginaren tamaina handiagoa izatea eskatzen duelako. Muga hori gorabehera, ikusi da kontsumoa handitu egin dela 15-24 urte bitarteko nerabeen eta gazteen artean.

- Eguneko kontsumoaren tasa: substantzia horietarako guztietarako, azken hilabeteetan substantzia horiek kontsumitu zituzten 15-24 urte arteko pertsonen proportzioa jaitsi egin zen 2017koarekin alderatuta, MDMA izan ezik. Berriz ere, eredu desberdina ikusten zen sexuaren arabera. Mutilek kontsumoa murriztu zuten; neskek, aldiz, handitu. Psikofarmakoen kasua berezia da; izan ere, ezin dira bereizi «preskripzioarekin» egindako kontsumoa eta mediku-errezetarik gabe egiten dena. Nolanahi ere, substantzia horien kontsumoa asko handitu da, batez ere nesken artean.

Beste substantzia batzuen egungo kontsumoa 15-24 urte arteko biztanleriaren artean, sexuaren arabera (%).

15-24 urte	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Legez kontrako beste droga batzuk (kalamua kanpoan utzita)	1,62	0,0	3,29	1,50	1,66	1,34
+ Kokaina	1,28	0,0	2,60	1,09	1,19	1,00
+ Speeda, anfetaminak	0,96	0,0	1,95	0,37	0,40	0,35
+ MDMA, estasia	0,80	0,0	1,62	0,95	0,87	1,03
+ Azidoa, LSDa	0,23	0,0	0,48	0,35	0,40	0,31
+ Onddo haluzinogenoak	0,41	0,0	0,83	0,39	0,47	0,31
Psikofarmakoak, medikuaren errezetarekin*	1,9	2,7	1,0	—	—	—
Psikofarmakoak, medikuaren errezetarik gabe	0,0	0,0	0,0	0,55	0,73	0,39
Psikofarmakoak, errezetarekin edo gabe	1,9	2,7	1,0	4,44	6,70	2,34

*2023an ez da jasotzen errezetarekin egindako psikofarmakoen kontsumoa.

- Eguneko kontsumoaren tasa ez da alderagarria, proportzioak ezegonkorak direlako.

7. Adierazlea: Alkoholaren kontsumo intentsiboaren prebalentzia murriztea 15 urtetik 24ra bitarteko biztanlerian, sexuaren arabera banatuta. Abiapuntua (2017).

2023an, ikusi da apur bat handitu zela azken hilabeteen kontsumo intentsiboa gutxienez behin egin zuten nerabeen eta gazteen proportzioa. Azpimarratzekoa da neskek izan zutela igoyerarik handiena, eta, funtsean, maiztasun handieneko kontsumoetan.

Alkohola intentsiboki kontsumitzearen prebalentzia 15-24 urteko biztanleen artean.

15-24 urte	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Azken 30 egunetan	22,9	20,5	25,4	23,5	23,6	23,4
+1-2 egun hilean	18,1	16,4	20,0	16,9	16,5	17,3
+3-4 egun hilean	3,8	3,6	3,9	4,0	4,5	3,6
Gutxienez 5 egun hilean	1,0	0,5	1,5	2,5	2,6	2,5

Oharra: kontsumo intentsiboko gertakari gisa hartzen dira, gizonezkoen artean, eguneko bost edari alkoholdun edo gehiago kontsumitzea eta, emakumezkoen kasuan, eguneko lau edari alkoholdun edo gehiago kontsumitzea.

8. Adierazlea: Gehiegizko jokoaren edo arriskuaren prebalentzia murriztea Gehiegizko Jokoaren Adierazle Kanadarraren arabera, 15 urtetik 24ra bitarteko biztanlerian eta biztanleria osoan, sexuaren arabera banatuta. Abiapuntua (2017).

2017an, Gehiegizko Jokoaren Adierazle Kanadarra erabili zen, zeinak bi arrisku-kategoriak (baxua eta ertaina) eta jokalaria porrokatuegia barne hartzen baititu. Tresnak bederatzi item ditu, eta, jokalaria aktiboaren kategoria orokorraren barruan, lau jokalaria tipologia bereizteko aukera ematen du ausazko edo apustuetako jokoei dagokienez.

2023an, galdetegia aldatu zen, jokoaren nahasmenduetarako DSM-5 irizpideak betetzen zituzten bederatzi galdera sartuta¹; hain zuzen, galdera sorta hori erabiltzen da gaur egun estatu-mailako EDADES eta ESTUDES galdetegiaren. Atalaseak, halaber, inkesta horietan erabilitakoak

¹ https://pnsd.sanidad.gob.es/profesionales/publicaciones/catalogo/bibliotecaDigital/publicaciones/pdf/2017_Estudio_Clinico.pdf

dira (1-3 irizpide, balizko joko problematikoa; 4 irizpide edo gehiago, balizko jokoaren nahasmendua²):

- Ez du diruarekin jokatu azken 12 hilabeteetan.
- Jokatu du azken urtean; ez du DSM-5 irizpide bakar bat ere betetzen.
- Balizko joko problematikoa, 1-3 DSM-5 irizpide.
- Balizko jokoaren nahasmendua: 4 DSM-5 irizpide edo gehiago.

Datuek adierazten dute arriskuzko jokoak murrizten ari dela, baina zuhurtziaz interpretatu behar da, eskala-aldaketa dela eta.

2017an, jokoarekiko adikzioaren prebalentzia handiagoa zen gizonen artean, eta emakumeena halako hiru zen; adinari dagokionez, gazteen eta adin ertaineko gazteen artean zen nagusi. 2023an, arriskuren bat zuten 15-24 urteko biztanleak gizonetzkoak ziren nagusiki. Biztanleria osoaren artean, gizonen jokoarekiko mendekotasuna emakumeena halako bi zen.

Diruarekin egindako joko-praktikak 15-24 urteko adin-tartean eta biztanleria orokorrean (%). Azken 12 hilabeteak, Euskadi.

	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urteko gazteak						
Joko aktiborik gabe ⁽¹⁾	92,1	97,5	86,6	78,2	86,0	70,9
Arriskurik gabe ⁽²⁾	4,5	2,0	7,0	20,7	14,0	26,9
Arriskuren bat:	3,4	0,5	6,4	1,1	0,0	2,1
+Arrisku txikia	2,5	0,5	4,6	0,9 ⁽³⁾	0,0 ⁽³⁾	1,7 ⁽³⁾
+Arrisku ertaina	0,6	0,0	1,3			
+Gehiegizko jokoak ⁽⁴⁾	0,3	0,0	0,5	0,2	0,0	0,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Biztanleria osoa						
Joko aktiborik gabe ⁽¹⁾	73,7	79,9	67,5	46,6	48,6	44,5
Arriskurik gabe ⁽²⁾	23,7	18,9	28,6	52,5	50,8	54,3
Arriskuren bat:	2,5	1,2	3,9	0,9	0,6	1,2
+Arrisku txikia	1,9	1,1	2,7	0,5 ⁽³⁾	0,4 ⁽³⁾	0,7 ⁽³⁾
+Arrisku ertaina	0,4	0,0	0,9			
+Gehiegizko jokoak ⁽⁴⁾	0,2	0,1	0,3	0,3	0,2	0,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Oharra: 2017an, Gehiegizko Jokoaren Adierazle Kanadarra erabili zen. 2023an, galdetegia aldatu zen, jokoaren nahasmenduetarako DSM-5 irizpideak betetzen zituzten bederatzita galderen sorta sartuta.

- (1) Ez du diruarekin jokatu azken 12 hilabeteetan.
- (2) Jokatu du azken urtean; ez du DSM-5 irizpide bakar bat ere betetzen.
- (3) Balizko joko problematikoa, 1-3 DSM-5 irizpide.
- (4) Balizko jokoaren nahasmendua: 4 DSM-5 irizpide edo gehiago.

²https://pnsd.sanidad.gob.es/profesionales/sistemasInformacion/sistemaInformacion/pdf/2022_Informe_Trastornos_Compormamentales.pdf (8. orria).


Gehiegizko edo arriskuko jokoaren prebalentzia sexuaren arabera, ICJEn arabera (%)

Azken 12 hilabeteak, Euskadi 2017



Gehiegizko edo arriskuaren barruko jokoaren prebalentzia, sexuaren arabera (%)

Azken 12 hilabeteak, Euskadi 2023




9. Adierazlea: Internet era arriskutsuan edo problematikoan erabiltzeko prebalentzia murriztea, Ormanen Internetekiko adikzio-testarekin, 15 urtetik 24ra bitarteko gazteetan eta biztanleria osoan, sexuaren arabera banatuta. Abiapuntua (2017).


Ormanen testak bederatzi elementu kontuan hartzen ditu, eta Interneten erabilera arriskutsua eta problematikoak identifikatzea ahalbidetzen du. Hiru erabiltzaile-talde bereizten ditu, baiezko erantzunetatik lortutako puntuazioaren arabera. Hiru talde horiek hauek osatzen dituzte:

- Arazorik gabeko pertsonak, 0 eta 3 puntu bitarteko puntuazioa dutenak.
- «Arriskuan» dagoen taldea, 4 eta 6 puntu arteko puntuazioa duena.
- Zehazki erabilera problematikoak izango lukeen taldea, 7 eta 9 puntu bitarteko puntuazioa duena.

Horrela, 2017an, 15 eta 74 urte arteko herritarren % 14,9k ez zuten erabiltzen Internet. Ormanen testaren arabera, erabiltzen zuten pertsonen % 80,1ek arazorik gabe erabiltzen zuten, eta % 5ek erabilera arriskutsua edo problematikoak egiten zuten.




Biztanleria orokorrean, Interneten erabilera arriskutsuaren eta problematikoaren prebalentzia zertxobait handiagoa zen emakumeen artean. Jokaera hori zuten biztanleen ia hiru laurdenek 15 eta 34 urte artean zituzten. Adin-talde gazteenean ere, 15-24 urte artekoetan, proportzioa handiagoa zen nesken artean (% 23,7), mutilen artean baino (% 20).



Adikzioei buruzko Euskadiko 2023ko Inkestaren hurrengo edizioan eskala aldatu zen eta CIUS (Compulsive Internet Use Scale) eskala erabili zen. Eskala hori nazioartean baliozkotuta dago, Interneten erabilera problematikoa neurtzeko eta arrisku-kasuak era goiztiarrean detektatzeko, eta aukera ematen du arloak hobeto konparatzeko. Galdera-sortak hamalau galdera ditu. Item bakoitza 0 eta 4 bitarteko eskala batean puntuatzen da; horrenbestez, 0 eta 56 puntu arteko puntuazio-tartea lortzen da. PNSDren irizpideei jarraituz, 28 puntu edo gehiago eskuratzeak Internet modu konpulsiboan erabiltzeko arriskua adierazten du.

Eskala aldatu arren, 2023an Interneten erabilera konpulsibo handiagoari eutsi zitzaion 15-24 urteko nesken artean (% 24,4), mutilekin alderatuta (% 16,3).



10. Adierazlea: Droga normalizatuaren arriskuari buruzko pertzepzioa areagotzea: alkohola, tabakoa eta kalamua 15 urtetik 24ra bitarteko gazteetan eta biztanleria osoan, sexuaren arabera banatuta. Abiapuntua (2017).

Alkoholaren kontsumoa: 2017arekin alderatuta, 2023an handitu egin zen alkohola kontsumitzea osasunerako arriskutsua dela hautematen zuten pertsonen proportzioa, 15-24 urteko gazteen artean gehienbat.

Alkohol-kontsumoari buruzko pertzepzioak (%), Euskadi.

	2017			2023*		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urteko gazteak						
Asteburuetan 5-6 kaña edo kopa hartzea	34,5	40,9	27,9	61,5	65,9	57,4
Egunero 5 edo 6 kaña/kopa edatea**	94,9	96,7	93,1	-	-	-
Egunero 1 edo 2 kaña/kopa edatea	46,4	49,7	42,9	65,2	66,6	63,9
Biztanleria osoa***						
Asteburuetan 5-6 kaña edo kopa hartzea	34,6	40,3	28,7	50,8	56,4	44,8
Egunero 5 edo 6 kaña/kopa edatea**	94,1	96,3	91,9	-	-	-
Egunero 1 edo 2 kaña/kopa edatea	42,4	51,4	33,3	46,5	51,0	41,6

Oharra: kontsumoak arazo dezente edo asko eragiten dituela erantzun duten pertsonen ehunekoari buruzkoak dira datuak, aipatutako jarraibide bakoitzeko.

*2023an, galdera horien adierazpena apur bat aldatu egin zen, eta «kaña edo ardo-kopa» aipatu zen.

**2023ko galdetegian ez zen egin galdera hori.

***2023an, 15 urteko eta gehiagoko biztanleria aipatu zen.

Tabako-kontsumoa: Azken hamarkadan aldaketa garrantzitsua gertatu da tabakoak osasunerako arriskuak izateari buruzko pertzepzioari dagokionez. Egunean pakete bat erretzeak arazo nahikoa edo asko ekartzen dituela uste zuten 15-24 urteko gazteen ehunekoak antzekoak izan zen 2017an eta 2023an. 2023an bi puntu baino apur bat gehiago murriztu zen sentibilizazioa biztanleria orokorraren artean, eta handiagoa zen gazteen artean.

Tabako-kontsumoari buruzko pertzepzioak (%).

	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urteko gazteak						
Egunean 5 zigarro erretzea*	67,2	72,7	61,5	-	-	-
Egunean tabako-pakete bat erretzea	97,1	96,6	97,5	97,7	98,3	97,1
Biztanleria osoa**						
Egunean 5 zigarro erretzea*	50,3	55,4	45,1	-	-	-
Egunean tabako-pakete bat erretzea	97,8	98,2	97,3	95,7	96,9	94,5

Oharra: kontsumoak arazo dezente edo asko eragiten dituela erantzun duten pertsonen ehunekoari buruzkoak dira datuak, aipatutako jarraibide bakoitzeko.

*2023an ez zen egin galdera hori.

**2023an, 15 urteko eta gehiagoko biztanleria aipatu zen.

Kalamu-kontsumoa: Oro har, adin-talde gazteenean eta biztanleria orokorrean, osasunerako arriskutsua izateari buruzko sentsibilizazioa funtsean asteko edo eguneko kontsumoan hartzen zen gogoan. 2023an, arriskuaren pertzepzioa hazi egin zen, eta are nabarmenagoa izan zen gazteen taldean.

Kalamuaren kontsumoari eta irisgarritasunari buruzko pertzepzioa (%).

	2017			2023		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urteko gazteak						
Hilean behin edo gutxiagotan kalamua erretzea	25,6	29,8	21,3	41,2	46,5	36,4
Astean behin edo gehiagotan kalamua erretzea	63,8	70,3	57,1	83,1	87,8	78,7
Biztanleria osoa*						
Hilean behin edo gutxiagotan kalamua erretzea	35,8	41,7	29,7	43,7	48,1	38,9
Astean behin edo gehiagotan kalamua erretzea	64,8	70,3	59,2	70,0	73,3	66,5

Oharra: kontsumoak arazo dezente edo asko eragiten dituela erantzun duten pertsonen ehunekoari buruzkoak dira datuak, aipatutako jarraibide bakoitzeko.

*2023an, 15 urteko eta gehiagoko biztanleria aipatu zen.

3. ARDATZA: LAGUNTZA SANITARIOA ETA SOZIOSANITARIOA ETA GIZARTE-INKLUSIOA


19. Adierazlea: Gizartean baztertuta dauden droga-mendekoentzako baliabideetan arreta jaso duten pertsonen proportzioa handitzea (egoera horretan dagoen biztanleria guztiarekiko).

Hurrengo taulan, adikzio-arazoak dituzten eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen kopurua adierazten da, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin hitzartutako baliabideetan arreta jasotzen dutenena. COVID-19aren pandemian, murriztu egin zen baliabide horiek erabili zituzten pertsonen kopurua, aurreko urteen aldean. Ikusten da artatutako gizonen kopurua emakumeena baino nabarmen handiagoa izan zela, batez ere pandemiaren ondoren. 2022an berriro ere igo egin zen artatutako pertsonen kopurua, baina ez zen iritsi abiapuntuko urteko zifretara, 2017ko zifretara.

Gizartean baztertuta dauden, adikzioak dituzten eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hitzartutako hiru baliabideetan artatu diren pertsonen proportzioa (%).

		Arreta-premia txikiatarako eta larrialdi soziosanitarioetarako eguneko baliabidea, gizartean baztertuta dauden droga-mendekoentzakoa	Adikzioak artatzeko Bilboko zentro soziosanitarioa «Andén 1»	«HONTZA» larrialdiko eta harrerako gaueko zentroa	GUZTIRA
2017	Gizonak	396	358	464	1.218
	Emakumeak	88	74	163	325
2018	Gizonak	347	344	575	1.266
	Emakumeak	80	68	155	303
2019	Gizonak	365	323	532	1.220
	Emakumeak	77	55	127	259
2020	Gizonak	329	283	382	994
	Emakumeak	62	60	87	209
	Transak	2	0	0	2
2021	Gizonak	308	312	342	962
	Emakumeak	56	53	45	154
	Transak	3	0	0	3
2022	Gizonak	334	306	530	1.170
	Emakumeak	56	51	53	160
	Transak	3	0	0	3
2023	Gizonak	357	311	485	1.153
	Emakumeak	52	47	57	156
	Transak	3	0	0	3

Pandemiaren urtean, artatutako pertsonen proportzioa murriztu egin zen. Geroko urteetan, zenbatekoa leheneratzen joan da, baina ez da iritsi pandemiaren aurreko proportzioetara.



20. Adierazlea: Tabakoa erretzeko ohitura uzteko tratamendua amaitzen duten eta erretzeari uzten dioten pertsonen ehunekoaren igoera.

Osakidetzan tabakoa erretzeko ohitura uzteko tratamendua amaitu duten pertsonak

	Taldean Guztira			Banaka Guztira		
	EMAKUME AK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
2017	% 15	% 16	% 15,5	% 6	% 7	% 6,5
2018	% 22	% 20	% 21	% 5	% 5	% 5

Iturria: Osakidetza

2019tik 2023ra ez dira eman benetako jarraipen-datuak.

21. Adierazlea: Adikzio-arazoak dituzten eta balorazioa egin ondoren tratamendua hasten duten 18 urtetik beherako pertsonen ehunekoak.

Ez dago informaziorik.


4. ARDATZA. EZAGUTZAREN KUDEAKETA, PRESTAKUNTZA ETA EBALUAZIOA

26. Adierazlea: Urteko bisita kopuruaren areagotze progresiboa Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren webgunearen Adikzioen ataleko ezagutzaren kudeaketarekin erlazionatutako guneetan (Gabia: Droga-mendekotasunen Euskal Behatokia) eta Drogomedian (Dokumentazio-arloa). Abiapuntua (2017).

2017. urteaz geroztik, Gabia – Droga-mendekotasunen Euskal Behatokian erregistratutako bisiten kopuruak gora egin du, nagusiki Adikzioei buruzko Euskadiko Inkestaren atalean eta adikzioen eta droga-mendekotasunen baliabideei buruzkoan. Bi kasuetan, bisita gehien 2019an izan ziren, nabarmen.

Kanpoko bisiten erregistroa Gabia – Droga-mendekotasunen Euskal Behatokian.


	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta	45	651	1.791	1.264	1.646	1.154	1.333
Jardunbide egokiak	85	232	191	178	188	182	212
Alerta-sistemak	65	268	176	124	134	123	283
Argitalpen teknikoak	50	295	455	346	473	340	418
Adikzioen eta droga-mendekotasunen baliabideak	15	1.499	1.620	1.470	1.241	1.115	1.178



Drogomedia dokumentazio-zentroari dagokionez, 2018 eta 2019 artean bisitak bikoiztu egin ziren, eta urte horretatik aurrera egonkor mantendu dira, 2022an beherakada txiki bat izan bazen ere.

Drogomediako bisiten erregistroa

2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
24.493	31.265	58.939	59.000	57.556	51.723	58.885




Oro har, eta batez ere 2021az geroztik, bisitak gehiago izan dira webguneko eduki guztietan, Gabia – Droga-mendekotasunen Euskal Behatokiaz bestelakoetan, eta are nabarmenago drogei eta adikzioei buruzko atalean (LSD, kokaina, anfetamina, jokabide-adikzioak).

Kanpoko bisiten erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Adikzioen webguneko gainerako ataletan, 2018-2023

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Adikzioen hasiera	10.363	9.290	6.809	6.478	4.180	4.119
Drogak eta adikzioak: jokabide-adikzioak	6.170	11.711	17.869	18.266	19.148	15.127
Adikzioei buruzko Euskadiko VII. plana.	3.495	1.573	1.385	1.446	1.268	1.124
Non bilatu laguntza?	1.811	3.003	2.772	3.273	2.792	2.363
Kerik gabeko gazteak	1.764	1.980	1.365	1.186	1.504	2.105
Drogak eta adikzioak: anfetamina	1.789	3.913	-	9.752	12.493	12.085
Drogak eta adikzioak: kokaina	1.304	3.886	-	14.670	14.899	17.089
Drogak eta adikzioak: LSDa	-	10.007	-	31.947	46.071	43.016

Oharra: 2018an ez zen kontabilizatu LSDaren inguruko bisiten erregistrorik.



27. Adierazlea: Jardunbide egokitzat jotako urteko jarduketan gehikuntza progresiboa osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko arloan. Abiapuntua (2017).

Bi urtez aztertzen eta izapidetzen aritu ondoren, 2020an adikzioen arloko jardunbide egokien eta ibilbide profesionalaren aintzatespenak sortu ziren. Aintzatespenak pertsona fisiko zein juridikoek, entitate publiko zein pribatuek nahiz administrazio eta instituzio publikoek adikzioen esparruan izan duten ibilbide profesionalari balio emateko sortu dira, bai eta pertsona edo entitate horiek adikzioen prebentzioaren, asistentziaren, gizarteratzearen, prestakuntzaren edo ikerketaren arloetan izandako jardunbide egokiei balio emateko ere.

Adikzioen arloan gauzatutako jardunbide egokiei balioa emateko urteko jarduketak. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

2018	Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea garatzeko dekretu bat egiteko azterketa- eta analisi-fasea. Dekretu horren helburua izango da adikzioen arloko jardunbide egokiei eta ibilbide profesionalari buruzko aintzatespenak sortzea eta arautzea.
2019	1/2016 Legea (apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa) garatzeko dekretua (adikzioen arloko jardunbide egokien eta ibilbide profesionalaren aintzatespenak sortzen eta zehazten dituen) izapidetzea.
2020	5/2020 Dekretua (urtarrilaren 21ekoa, Adikzioen arloko jardunbide egokien eta ibilbide profesionalaren aintzatespenak sortu eta zehazten dituen) argitaratzea.
	2020-2022ko jardunbide egokienak eta 2020-2024ko ibilbide profesionala aintzatesteko deialdien argitalpena.
	Deialdien prestaketa eta antolakuntza.
2021	Epaimahaiaren jarduketa bultzatu eta babestea aintzatespen horien lehen deialdian.
	EAEko adikzioen arloko 2020-2022ko jardunbide egokiak eta 2020-2024ko ibilbide profesionala aintzatesteko ebazpenak argitaratzea eta jakinaraztea.
	Osasuneko sailburu Gotzone Sagarduik «Elkar Eginez» sari eta diplomak banatu zituen, 2021eko ekainaren 17an egin zen ekitaldi publiko batean.
2022	2022-2024ko jardunbide egokienak aintzatesteko deialdiaren argitalpena.
	Deialdiaren prestaketa eta antolakuntza.
2023	Epaimahaiaren jarduketa bultzatu eta babestea.
	Euskadiko 2022-2024ko jardunbide egokiak aintzatesteko ebazpenak argitaratzea eta jakinaraztea.
	Osasuneko sailburu Gotzone Sagarduik «Elkar Eginez» sari eta diplomak banatu zituen, 2023ko azaroaren 20an egin zen ekitaldi publiko batean.

5. ARDATZA. LIDERGOA ETA KOORDINAZIOA

30. Adierazlea: 1/2016 Legean ezarritako xedapenak jasotzen dituzten 2016ko apirilaren ondorengo udal-ordenantzen kopurua.

1/2016 Legea (apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa) argitaratu ondoren ez da ordenantza berririk argitaratu Euskadiko udalerrietan.

31. Adierazlea: 2017tik 2023ra artean prebentziorako garatutako udal- eta foru-planen kopurua.

	Tokiko planak
2017	46
2018	47
2019	47
2020	47
2021	47
2022	47
2023	47


Oharra: indarrean dauden edo prestatzen ari diren tokiko planen kopurua jaso da.

32. Adierazlea: 2017tik 2023ra arteko komunitate-prebentzioaren programa kopurua.

Koadro honek erakusten du toki-entitateek aurkeztutako zenbat proiektu jaso duten dirulaguntza adikzioen arloan Osasun Sailak eman duen laguntzen aginduaren esparruan. Laguntzen agindu hori oinarri hartuta, toki-entitateen programak eskabide batean zehazten dira, eta programa bakoitzak proiektu bat edo gehiago izan ditzake.

Programen kopurua oso egonkorra da, eta 2018az geroztik proiektuetan ikusitako beherakada laguntzak kudeatzeko plataforma telematiko berrian talde berri bat ezartzeari zor zitzaion. Hain zuzen, horren ondorioz, proiektuen kopurua murriztu egin zen komunitate-prebentzioaren programa bakoitzaren barruan.

	Bizkaia		Gipuzkoa		Araba		Proiektuak guztira
	Programak	Proiektuak	Programak	Proiektuak	Programak	Proiektuak	
2017	23	191	18	117	3	20	328
2018	22	77	20	91	3	9	177
2019	22	79	18	93	3	7	179
2020	21	80	16	71	2	11	162
2021	22	85	18	83	3	13	181
2022	23	85	17	80	3	11	176
2023	23	95	18	66	3	11	172



33. Adierazlea: Arriskuak eta kalteak murrizteko eta adikzioen arloan jokabide osasungarriak sustatzeko diren eta 2017-2023ko aldian finantzaketa publikoa izan duten proiektuen kopurua.

Koadro honek erakusten du hirugarren sektoreko entitateen zenbat proiektuk jaso duten dirulaguntza adikzioen arloan Osasun Sailak eman duen laguntzen aginduaren esparruan . Ikusten da 2022an eta 2023an laguntzak jaso nahi dituzten proiektuen kopurua handitu dela.

	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA	PROIEKTUAK, GUZTIRA
	Proiektu kop.	Proiektu kop.	Proiektu kop.	
2017	40	15	10	65
2018	46	16	10	72
2019	43	15	9	67
2020	44	15	13	72
2021	47	15	14	76
2022	50	20	14	84
2023	51	21	12	84

